



GIZAESKUBIDEAK  
ESKUZESKULpuina

# Harri bat bezala

Nafarroako  
Gobernua



Gobierno  
de Navarra



**EGILEAK:**

Juan Kruz Igerabide, Legasako Eskola (Legasa), Otsonta IP (Saldias), Iñigo Arizta Ikastola (Altsasu), Bernart Etxepare (Iruña), Sunbillako Eskola (Sunbilla), Garces de los Fayos Ikastola (Tafalla), Orreagako Ama IP (Garralda), San Miguel Eskola (Noain), CP Buztintxuri IP (Iruña), Larraintzarko Ikastetxea (Larraintzar-Ultzama), Marqués de la Real Defensa (Tafalla), Hegoalde Ikastola Publikoa (Iruña), CP Ángel Martínez Baigorri (Lodosa), Ezkaba IP (Antsoain), San Miguel Eskola (Uharte Arakil), Argia Ikastola (Tutera), Irain IP (Lesaka), Ibarberri IP (Lekunberri), Paz de Ziganda Ikastola (Atarrabia), Lizarra Ikastola (Lizarra), CP San Francisco IP (Iruña), Otsagabia IP (Otsagabia).

**KOORDINATZAILEA:**

Irati Goikoetxea Asurabarrena (Bizikidetza Atalburua)

**EDIZIOA:**

Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra  
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua  
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

© Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua

L.G.: NA 3082-2019

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Horixe Diseño

**ILUSTRAZIOAK:** Itziar Goñi

**INPRENTA:** Idazluma S.L.

# GIZAESKUBIDEAK ESKUZESKUPuina





## AURKEZPENA

Irakurri, aztertu, hausnartu, eztabaidatu eta sortu. Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak abian jarri duen ekimenean parte hartu duten ikasleek bost pauso horiek eman dituzte “esku askoren artean” idatziriko Giza Eskubideak Ipuin Katea sortzeko.

Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, eta “Memoria duten eta Bakea eta Bizikidetzaren lantzen duten Eskolak” programaren bidez, Nafarroako 39 ikastetxeetako 1.605 ikaslek 62 irakaslerekin batera, Juan Kruz Igerabide eta Lucía Baquedano idazleek hasitako bi ipuini jarraipena eman eta bi lan eder osatu dituzte.

2019ko azaroan zehar, proiektuan parte hartu duten ikasleena izan da bi ipuinak bizirik mantentzeko ardura. Hilabeteko egun lektibo bakoitzean, ikastetxe bat, batzuetan bi, arduratu dira ipuin bakoitzari jarraipena emateaz. Egitekoa bikoitza izan da, ordura arte idatzitako ipuinaren irakurketa sakon bat egitea eta ideia berriekin jarraipena ematea.

Ilusioa eta irudimena ezinbestekoak izan dira emaitza ederra suerta zedin; azaldutako inplikazioari esker parte hartzaile

guztiek eurena sentitzen dute ipuina. Irakasle arduradunek hala azaldu dutenez, sortze prozesuan ikasleek izan duten inplikazioa oso handia izan da; ikasleek ilusio handiz egin dute lan eta jarduera hau gelan landu ahal izatea oso interesgarria izan da.

Sortutako bi ipuinak biltzen dituen ale hau Nafarroako ikasketxe eta liburutegi guztietara iritsiko da gizarteari egindako lan polita erakusteko asmoz. Irakasleek, familieek eta gizarteak orokorrean Giza Eskubideen inguruko lanketa egiteko tresna egokiak izango dira hemendik aurrera bi ipuinok.

Eskertu eta txalotu egin nahi dugu proiektu honetan parte hartu duten pertsonak azaldutako konpromisoa eta egindakoa mimitoz, goxotasunez eta ilusioz egin izana. Hemendik aurrera, zuk irakurle, ipuin hauen irakurketarekin gozatzea espero dugu.











Harri  
bat  
bezala





Harri  
bat  
bezala



Bazegoen harri bat plaza baten erdian, hiri bateko kale nagusiaren alboan. Mendeak zeramatzan hantxe, inguruari begira. Batzuek zioten meteorito bat zela; beste batzuek, Errolan Harri bat, Errolan erraldoiak mendi urrun batetik jaurtitakoa; beste batzuek, antzinako eskultura bat. Inork ez zekien, ordea, harri hark mintzatzeko gaitasuna zuela, ikusitako guztia kontatzen zuela. Aski zen belarria haren kontra jartzea mintzoa entzuteko. Behin, haur batek horixe egin zuen, belarria haren kontra jarri, eta harriak ikusitako gertaera bat entzun. Gero, haurrak lagun bati esan zion sekretua, eta hark ere belarria jarri zuen. Eta bigarren haurrak hirugarren bati esan zion sekretua.

Haur haiek zer gertaera entzun ote zituzten harriak ikusiak?

Aspaldian aurrean dugun plaza honen aurrean Maddi, Axun eta Pello kanikekin jolasten ari ziren. Maddik 8 urte zituen, Axunek bi gutxiago eta ttikienak, Pellok, 3.

Merkatu eguna izanik jende asko zebilen joan etorrian, Pellok kanika jaurti zuenean erosketak egiten ari zen emakume batek ostikoa eman eta plazan barrena nola urruntzen zen ikusi zuten. Orduantxe abiatu ziren hiru

anai-arrebak kanikaren atzetik korrika, ikusiko zutena ez zuten inondik inora espero.

Kanika gurpil baten ondoan geratu zen, buruak altxatu zituztenean, gurpildun aulki bat ikusi zuten eta bertan eserita 8 urteko mutiko bat. Gurpildun aulkia bizikleta baten bi gurpilez eta plastikozko aulki batez osatua zegoen. Haurrek harrিতa begiratu zioten eta Maddik galdetu zion:

– Zergatik zaude hor eserita?

– Duela bi urte, lagunekin herriko plazan nengoen –hasi zen gurpildun aulkiko mutila kontatzen–. Beti bezala, lagunak jotzen ari nintzen, haiak zirikatzen... harro samar!! Guztiak haserretu nituenean, zuhaitz altuenera igozteza erabaki nuen. Nahiz eta lagunek esan oso arriskutsua zela, ez nien kasurik egin eta puntaraino iritsi nintzen. Baina bat-batean hankak irrist egin eta han joan nintzen hankaz gora!!! Lurrera iristean, plazan zegoen harriaren kontra jo nuen bizkar hezurra. Sekulako kolpea hartu nuen! Laguntza eskatu arren, inork ez zidan kasurik egin. Denak haserre eta nahigabetuta zeuden nirekin. Ai ene! Ez nituen hankak sentitzen!! Momentu horretan, harria besarkatu eta negarrez hasi nintzen. Harria, dardarka hasi eta hitz egi-

ten hasi zitzaidan: “Nahiz eta elbarri gelditu, bihotz handia duzu eta jendeari laguntza eskaintzen badiozu zure arazoa garaituko duzu”. Eta harriari galdetu nion: zer egin behar dut besteei laguntzeko? Nori lagundu behar diot?...

“Harriak erantzun zion:

– Beñat –horrela deitzen baitzen mutikoa–, zure lagun bat, familiako norbait edo kaletik ikusten duzun edonor lagundu dezakezu. Ez ahaztu, Beñat, bihotz onekoa zarela.

Beñat ongi sentitu zen harriak esandakoarekin, eta galdetu zion:

– Baina zu, zer zara?

– Ni mineral magikoa naiz, bidean laguntza behar duen norbait topatuz gero, bidali niregana eta esan ni besarkatzeko.

Harriak gurpildun aulki bat egin zion magiarekin eta Beñat poz-pezik joan zen herritik barrena laguntza behar zuen jendearen bila. Herriko plazara iristerakoan neskato txiki bat topatu zuen negarrez. Beñatek galdetu zion neskari:

– Zergatik ari zara negarrez?

– Nik nire familia istripu batean galdu dut eta bi aste daramatzat ezkutututa eta beldurtuta. Orain ausartu naiz kalera ateratzen. Lagundu ahal didazu?

Beñat arrunt triste gelditu zen, ez zekien zer egin. Orduan Beñatek harriarengana joateko eta harria besarkatzeko esan zion Miren izena zuen neskari. Harriak lasai egoteko esan zion, bikote ziren bi emakume ezagutzen zituela, haurrak izan nahi zituztela eta aurkeztu egingo zizkiela.

Orduantxe azaldu ziren bi emakumeak eta beren burua aurkeztu zuten:

– Egun on, Miren! Gu Begoña eta Kattalin gara eta haurtxo bat izan nahi dugu. Asko gustatuko litzaiguke zu gure haurra izatea, zu oso bakarrik sentitzen zarela esan digutelako.

Eta Mirenek erantzun zuen:

– Kaixo, ni Miren naiz eta sei urte ditut. Oso triste nago gurasoak galdu ditudalako. Istripu batean hil zitzaizkidan. Eta orain beldurtuta nago.

Begoñak eta Kattalinekin, Mirenen begietan beldurra ikustean, beraien etxera gonbidatu zuten, elkar hobeto



ezagutzeko asmoarekin. Miren, hasieran, beldurtuta sentitu zen, ez baitzuen bikotea ezagutzen, baina Begoñak eta Kattalinek eroso sentiarazi zuten eskainitako goxotasunarekin.



Aste bat pasa zenean Miren alaiago zegoen, bere ama berriekin konfiantza hartzen hasi zen eta haiekin gehiago hitz egiten zuen. Miren bere arazoak poliki-poliki gainditzen hasi zen eta Beñat noizbehinka Mirenen etxera joaten zen eta biek elkarrekin primeran pasatzen zuten. Mirenen urtebetetzea hurrengo astean zenez, festa handi bat prestatzea erabaki zuten.

Iritsi zen urtebetetze eguna. Mirenek bere lagun guztiak gonbidatu zituen. Festa hasi aurretik, baloiarekin jolasten hasi ziren herriko plazan. Baloia urrun joan zitzairen eta haren bila zihoazela, baloia mutil baten oinetan geratu zen. Baloiari tokeak ematen hasi zen; erakusten zuen kontrola izugarria zen. Hori ikusita Mirenek galdetu zion:

– Zein ona zaren baloiarekin! Nahi duzu gurekin jolastu?

Mutilak ez zuen erantzuten. Hau ikusirik, Beñatek esan zion:

– Zu ez zara hemengoa; nondik zatoz? Zein da zure izena?

Mutilak ez zuenez erantzun, Beñatek harriarengana eramane zuen. Harria magikoa zenez mutila euskaraz hitz egiten hasi zen.

Abdul izena zuela esan zuen. Senegaletik etorria zela eta 9 urte zituela. Hau entzutean Mirenek galdetu zion:

– Eta nola etorri zara honaino? Bakarrik etorri zara?

Abdulen kontakizuna zirrargarria bezain tristea izan zen. 8 urte zituela bere familiarekin Senegaletik ihes egin zuen, hilabeteak eman zituzten Saharako basamortua zeharkatzen. Marokora iristean bere familia atxilotu egin zuten, baina berak kamioi baten azpialdean ezkututzea lortu zuen. Kea eta hautsa irensten egon zen luzaroan; zikin eta gose. Egoera tamalgarri horretan egon arren, Abdulek indarrak atera zituen bizirauteko.

– Baina... nola lortu zenuen egoera horretatik ateratzea? –galdetu zuten Miren eta Beñatek aldi berean.

– Ba... kamioi hark istripu txiki bat izan zuen eta errepede bazterrean gelditu behar izan zuen.

Momentu hura aprobe txatuz, bertatik jaitsi eta han hurbileko baso batean sartu nintzen. Etsitzen hasia nintzen, gosez hilko nintzela uste bainuen. Orduan, eskutan eskopeta bat zekarren gizon bat niregana hurbiltzen ikusi nuen.



Hasieran, beldurtu egin nintzen, hilko ninduela uste bainuen. Baina gizon hark maitasun handiz hitz egin zidan eta gose nintzela ikusita, jateko eta edateko zerbait eman zidan. Gizon hark lagunduta, eta behar ziren paperak egin eta gero, familia batek harreran hartu ninduen.

Abdul, Miren, Beñat eta beste lagunak plazan jolasten ari ziren bitartean bat-batean euria hasi zuen eta trumoiak ere entzuten hasi ziren. Halako batean tximista batek harriaren kontra jo zuen, harria bitan apurtuz. Lagun guztiak azkar joan ziren harria ondo jartzera, baina harria elektrizitatez beterik zegoenez, ezin izan zuten lagundu.

Hainbat saiakera egin zituzten bi harri zatiak elkartzeko, baina ez zuten lortu. Orduan, harriturik geratu ziren, saiatu arren ez baitzuten emaitza onik lortu.

Beñat eta bere lagunak oso triste geratu ziren, eta etxean sartuta egon ziren hainbat egunetan.

Handik egun batzuetara, ikastetxetik txango bat egin zuten Ultzamara. Bertan Eltsoko Ezti Museoa, Orgiko Hariztia eta Arraitzen dagoen Abauntzeko kobazuloa ikusi behar zituzten.

Abauntz aldera joateko bidean Abdulk Beñati lagundu zion aulkiarekin. Ia iritsi zirenean, zubi batetik pa-

satzerakoan, biek lamia bat ikusi zuten errekan eta herriko arazoaz gogoratuta, esan zioten:

– Harri magiko bat puskatu zaigu. Konpontzen lagundu ahal diguzu?

– Nire magia kendu didate, ordea, esklabo egin bainaute –erantzun zuen lamiak.

– Zer gertatu zaizun azaltzen badiguzu, zuri laguntzen saiatuko gara.

Lamiak kontatu zien behin gizon batzuk iritsi zirela erre kara eta ustekabeen zaku batean sartu zituztela bera eta bere lagun Iris.

– Nik Iris gabe ezin zaituztet lagundu, baina jakin ezazue harri magiko guztiak ibai honetatik atera direla, beraz, puskatutako harria uretara itzultzen baduzue, konpondu egingo da. Jakin ezazue lortu ahal izateko, guztion laguntza eta indarra beharrezkoak izango dituzuela; lagunen artean, elkarri lagunduz.

– Lasai, hala bada, harria herriko plazatik hartu eta bihar itzuliko gara. Ondoren, harria konpontzen dugunean, Iris non dagoen galdetuko diogu.

Hurrengo egunean, erreka ondora itzuli ziren lagunak, denen artean bi zatiak altxatu eta uretan sartu zituzten. Bat-batean, harria hondoratu egin zen eta zati txikietan puskatu zen, lagun bakoitzak bat hartuz.

– Hemendik aurrera –adierazi zien Lamiak– harriaren magia erabili ahal izateko, elkartasuna eta laguntasuna beharrezkoak izango dira, puska guztiak elkartzeko.

Lagun taldea pozik zegoen harriari magia itzuli ziotelako baina, aldi berean, triste zeuden Iris lamia salbatu nahi zutelako eta ez zekitelako nola. Abdulek ideia bat izan zuen:

– Zergatik ez ditugu harriak elkartzen? Harriak elkartzean galdetuko dugu nola salbatu!

Abdulek esandakoa egin zuten. Harri magikoak kontatu zien Iris kartzela batean zegoela eta hoberena gauetan joatea izango zela, giltzak lapurtu eta Iris handik ateratzeko.

Hiru lagunak harri magikoaren laguntzarekin izar baten barruan sartu eta teletransportatu egin ziren Iris zegoen kartzelaraino. Kartzelako atean bi katu erraldoi zeuden eta ezin ziren pasatu. Bat-batean kartzelako leiho batetik zortzi buruko dragoi bat agertu zen Abdul, Beñat eta Miren laguntzera. Bere gainean eseri eta kartzela ba-



rruan sartu ziren. Bertan euskal mitologiako pertsonaiak preso zeudela ikusi zuten.

Tartalo, Basajaun, Sorgina, Galtzagorriak eta Iris bertan zeuden.

Kartzelatik ateratzeko giltza bat aurkitu behar zuten, eta giltzaraino heltzeko proba ezberdinetatik pasa behar zuten, beti ere, talde lanean lan eginez.

Lehenengo proba xake partida erraldoi bat jolastea zen eta partida irabazi eta gero ahots beldurgarri bat entzun zuten:

– Asmakizun hau asmatu behar duzue, bestela ezin izango duzue hurrengo probara pasa: “Hasieran lau hanketan ibiltzen da, gero bi hanketan eta azkenik hiru hanketan. Nor da?”.





Abdul, Beñat eta Miren, urduri, asmakizunean pentsatzen hasi ziren, eta bat-batean Mirenek oihukatu zuen:

– Badakit!!! Pertsonak!!!

Hurrengo probara pasatzeko 1000 piezako puzzle bat osatu behar zuten 5 minututan, baina ez zuten lortu. Orduan hirurek harriak elkartu eta bat-batean pasabide ilun batean agertu ziren. Pasabidearen amaieran ate bat ikusi zuten eta hurbildu zirenean pasabidea estutu egiten zela konturatu ziren.

Miren bere harri magikoa erabiliz, hegan hasi zen eta sarrerako katu erraldoi bati azazkal bat kendu zion. Azazkal harekin atea irekitzea lortu zuen. Atea ireki eta gero gela batean sartu ziren, bertan Tartalo, Basajaun, Sorgina,



Galtzagorriak eta Iris zeuden, eta momentu horretan kon-  
turatu ziren beraiek hirurak ere preso zeudela.

Beñat, Miren eta Abdulek haien harri magikoa elkar-  
tu eta harriek giltza forma hartu zuten.

Atea ireki eta Basajaun, Tartalo, Sorgina, Galtzago-  
rriak eta Iris atera zituzten. Harriak zeuden errekarra joan  
ziren denak eta uretatik olagarro erraldoi bat atera zen.

Basajaun eta Sorgina etab. olagarroarekin borrokan  
hasi zirenean, neska-mutilek oihu egin zuten:

– Laguntza harriak! Norbait behar dugu olagarroari  
irabazteko.

Inork ez zuenez olagarroa hil nahi, harriaren boterea  
erabiliz errekarako ura desagerrarazi zuten eta olagarroak  
ura zegoen beste toki batera alde egin behar izan zuen.

Basoko lagunak eta Miren, Beñat eta Abdul elkarre-  
kin egon ziren gaua iritsi arte. Zerua izarrez bete zenean,  
izar bat hartu eta berriz ere herrira teletransportatu ziren.

Hurrengo egunean, ongi lo egin ondoren, lagunak  
herriko plazan elkartu ziren. Hirurek izandako ametsa el-  
karri kontatu zioten: harri puskek harri bakar batean el-  
kartzeko eskaera egin zieten haurrei.

Haurrek, eskolarako bidean, hainbat ideia izan zituzten harri zatiak itsasteko eta eskolara iristean, lagunei geratutako guztia kontatzea erabaki zuten, elkar laguntzeko. Lagun askok ez zieten ezer ere sinetsi.

Arratsaldean, Abdul, Beñat eta Miren herriko plazan geratu ziren beraien lagunekin harriak denon indar eta laguntzarekin elkartzeko asmoz. Nahiz eta lagun askok agertuko zirela erran, hiru besterik ez ziren agertu. Beste lagunak, intentzio txarrarekin kontatutakoa sinetsi ez zuten, ez ziren agertu.

Abdul, Miren eta Beñat triste eta haserre sentitu ziren, bazekiten horrela ez zutela harri zatiak elkartzea lortuko. Hala ere, saiatu behar zuten. Harriaren inguruan elkartu eta eskuak emanda oihukatzen hasi ziren:

– Harri magikoak! Elkartu zaitzete!

Denen laguntza lortu ez zuten, harriak elkartu beharrean hondar bihurtu ziren...”.

Maddik, Axunek eta Pellok zur eta lur entzun zuten plazan ezagutu berri zuten mutilak kontatutako istorioa.

Bat-batean, Beñatek istorioa eten zuen eta Axunek jakinminez galdetu zion:

– Zer gertatu zen ondoren? Hondarra harri bihurtzerik lortu zenuten?

Beñatek, begiak malkoz beterik zituelarik, ahopeka erantzun zuen:

– Tamalez, haize bolada batek hondarra hegoalderantz eramane zuen. Egun horretatik aurrera, gure laguntasuna indartu beharrean, elkarrengandik gehiago urrunduta gara.

– Zerbait egin beharko genuke. Baina... zer?

Pellok, gazteena izan arren, guztia adi entzun eta elkaritasuna eta laguntasuna oinarri zituen ideia biribila izan zuen.

Pellok lagun guztiak elkartuta eta lamiarengana joatea pentsatu zuen. Gainontzekoak harrituta geratu ziren hain txikia izanda ideia hain ona izateagatik. Ordu asko ibili ondoren, aldapa baten bukaeran lamiaren erreka heldu ziren. Hari laguntza eskatu eta gero, lau harri txiki eman zizkien.

Lagunek lau harri txikiak elkartuta zituzten eta erreka-ko uraren laguntzaz, berriro ere, hasierako harria bezalaxe elkartuta zuten. Bidaia luze eta neketsu baten ondoren, mila oztopo gainditu ondoren, berriro ere plazan utzi zu-

ten harri magikoa. Plazan, harriaren inguruan, hesi bat jarri zuten harria babesteko.

Hurrengo arratsaldean, eskolatik ateratakoan, lagun guztiak poz-pez harriaren inguruan jolasteko gelditu ziren. Sokasaltoan jolasten ari ziren bitartean, Beñatek soka eragiteari utzi eta lagunei esan zien:

– Aizue, entzun! Harria negarrez ari da!

Denak hesiaren inguruan jarri ziren eta Mirenek galdetu zion:

– Zer gertatzen zaizu, zergatik zaude negarrez?

– Hesia jarri didazuenetik bakarrik nago eta oso urrun sentitzen zaituztet...

Haur guztiak triste eta atsekabetuta elkartu ziren eta beraiei hainbestetan lagundu zien harriari laguntzeko garaia zela pentsatu zuten.

Orduan, herritar guztiak harria egunean behin berrakatzeari erabaki zuten, hesiak ez zuelako herriaren errespetua eta babesa bermatzen. Modu horretan, denek harriari maitasuna ematen ikasiko zuten. Baina nola antolatu zezaketen horrelakorik? Herrian biztanle asko zeuden...

– Egutegi bat egin dezakegu –proposatu zuen Pello txikiak.

– Baina nork kontrolatuko du besarkaden egutegia?  
–herritar batek erantzun.

– Alkateak? –Maddik.

– Justua al da alkateak guztia kontrolatzea? Eta harriak kontrolatzen badu? –Mirenek galdetu zuen.

Halako batean Beñatek eskua altxatu zuen eta irrintzi antzeko oihu bat bota zuen. Lagunek harrituta, Beñatengana luzatu zituzten begiak eta hiru hitz hauek atera zitzaizkion mutilari:

– Harri-herri-ura!! Harri-herri-ura!! Bai!! Harri-herri-ura!!

– Zer esan nahi duzu, Beñat? –galdetu zion Mirenek.

– Ba... harri maitagarria herriarena dela eta herriko plazan egon behar dela denen mesederako eta ibaiko ura behar duela bizirauteko. Zergatik ez...

– Zergatik ez dugu harria errekan sartzen? –proposatu zuen Mirenek.

– Ez zait ideia ona iruditzen –erantzun zuen Axunek– harria ito egingo da.

– Eta zergatik ez dugu deitzen herriko jende guztia denok elkarrekin harriarentzako iturri bat egiteko? –proposatu zuen orduan Pellok.

– Bai ideia ona! –erantzun zioten lagunek.

Alkatearengana joan ziren ideia proposatzeko, eta hark baietz esan zuen.

Egunero, herriko jende guztia, ordu zehatz batean, plazan elkartzen zen iturria eraikitzeko. Iturrian bertan, Abdulek, Mirenek, Beñatek



eta Euskal Herriko pertsonaia mitologikoen harriari putzu bat ere egin zioten. Putzuan harriak behar zuen ura bota zuten. Lamiaren laguna ere, Iris, putzura joan zen, eta biak oso pozik egon ziren.

Hilabete bat pasa ondoren iturria eraikita zegoen. Orduan, Beñatek harriaren festa egitea proposatu zuen. Beste lagunek baietz esan zuten, ideia ikaragarria zelako.

Hurrengo astean festa antolatzen hasi ziren. Oso ongi atera zen eta horregatik pentsatu zuten festa urtaro guztietan errepikatzea.

Harriaren eguna iristen denean, herritar guztiek eta pertsonaia mitologikoen beren festa ospatzen dute. Harriaren lagun guztiak zoriontsuak izango dira betiko, harria beren ondoan izango dutelako.





